

Luis Liz Marzán, aipamen gehien izan dituen zientzialarrietako bat, 2022ko Clarivate Analytics-en zerrendaren arabera

Luis Liz Marzán, CIC biomaGUNEko Ikerbasque irakasle eta Bionanoplasmonika taldeko ikertzaile nagusia, Highly Cited Researchers zerrenda ospetsuan sartu dute berriro, eta horrek erakusten du haren ekoizpen zientifikoak aparteko eragina duela hura aritzen den ikerketa-eremuan. 2014az geroztik urtero sartu da zerrenda horretan irakaslea, hainbat kategoriatan. Enpresak argitaratutako datuen arabera, Liz Marzánek 564 argitalpen ditu nazioartean ospe handia duten aldizkarietan, eta 61.400 aipamen baino gehiago jaso ditu haiengatik.

Highly Cited Researchers zerrenda urtero argitaratzen du Clarivate Analytics konpainia britainiarra. Ikerketa zientifiko eta akademikoetako datuak aztertzen eta biltzen espezializatuta dago erakunde hori, eta munduko ikertzaile garrantzitsuenak identifikatzen ditu, haiek egindako lanei buruzko aipamen-kopurua kontuan hartuta. Zehazki, espezializazio bereko lankideek gehien aipatzen dituzten artikuluko zientifikoek % 1 idatzi dituzten ikertzaileak aintzatesten ditu. 2022an, munduko ikertzaileen artean 21 ikerketa-esparrutako eta hainbat arlotako 7.000 ikertzailek baino gutxiagok (% 0,1 inguru) lortu dute aintzatespen eskusibo hori.

Azken aintzatespen honi gehitu behar zaizkio Anberesko Unibertsitateak Honoris Causa doktore izendatuko duela laster eta bere ibilbidean jasotako beste hainbat aintzatespen, hala nola González-Ciamician saria, Italiako Kimika Elkarteak emana, berriki Zientzien Errege Akademitan sartu izana akademiko oso gisa, 2020ko Catalán-Sabatier sari espainiar-frantsesa, 2018ko Enrique Moles Ikerketa Sari Nazionala, Zientziako Dupont saria, Ikerketako Jaime I.a saria, Kimikako Espainiako Errege Elkartearen domina eta Ikerketa biomedikoko Lilly Saria.